



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **75 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **todas** las tareas.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1 – Jatorrira jauzi era birtualean.

Egunkariko testu hau irakurri ondoren, erantzun galdera hauek.

Aukera bakarra da zuzena.

7 item x 1 puntu

..... / 7 puntu.

0.- Era birtualean:

- a) **IX. mendetik XVI. mendera arteko jauzia egiteko aukera eskaintzen zaigu.**
- b) Gasteizko hiriaren etorkizuna ezagutzeko aukera ematen zaigu.
- c) Gaur egungo Gasteiz ezagutzeko aukera ematen zaigu.

1.- Zein da egia:

- a) Etxe txiki bat ikusten dugu katedrala dagoen lekuan.
- b) Gaur egungo Gasteizko Alde Zaharraren gaineko aldean etxola bat dago.
- c) Santa Maria katedrala bere osotasunean ikus dezakegu.

2.- Garai bateko eraikinen adierazgarria:

- a) Adarrez egindako teilatuak.
- b) Bizitoki handiak izatea animaliak ere sartzeko.
- c) Luzeak eta estuak izatea.

3.- Bisita birtual honek:

- a) Erakunde pribatu batek jarriko dizkigu eskura.
- b) Fundazio baten eskutik disfruta ditzakegu.
- c) Gasteizko udalari eskertu behar dizkiogu.

4.- Taldeka egiten diren bisita hauek:

- a) Edozein modutan egin daitezke ez baitago arazorik.
- b) Lauzpabost kideko taldeetan egiten dira.
- c) Ondo egin ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira.

5.- Bisita birtuala:

- a) Bilakaera baten berri emanez hasiko da.
- b) Burdinola bateko langileekin hasiko da.
- c) Santa Maria katedralaren eraikuntzarekin hasiko da.

6.- Orain 100 urteko etxolak:

- a) Ez dira oso landuak nahiz eta harresiz inguratuak egon.
- b) Harrizko oinarriak dituzte eta bi pisutakoak ziren.
- c) Pisu bakarreko egurrez egindakoak ziren.

7.- Bisita birtualak:

- a) Bi agertoki baino ez ditu eta hamar mendetako eboluzioa ikus daiteke.
- b) Hainbat agertokitan hiriak izan dituen aldaketak ikusteko aukera ematen du.
- c) Harresiak izan dituen hiru ateak gaur egun non dauden erakusten dizkigu.

0	1	2	3	4	5	6	7
A							
√							



TAREA 2 –Berria egunkarian argitaratutako artikulua honetan hainbat hitz kendu ditugu. Aukeratu hitz egokia. Bi hitz sobera daude.

12 item x 0,5 puntu

..... /6 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
L												
√												

TAREA 3 – Lana ezkutuan egin behar izaten dugu.

Ondorengo elkarrizketan pareka itzazu galderak eta erantzunak.

Erantzun bat sobera dago.

7 item x 1 puntu

...../7 puntu

0	1	2	3	4	5	6	7
G							
√							

JATORRIRA JAUZI, ERA BIRTUALEAN.

BERRIA 2020-X-18 (Moldatua)

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria Gasteiz

Gasteizko hiriaren jatorria ezagutu ahal izateko, errealitate birtuala oinarri duten bisita gidatuak egiteko aukera dago. IX. mendetik XVI. mendera arteko bidaiaz gozatzeko aukera dute bisitariak. Jatorrira jauzi, era birtualean.

Herrixka bat da gaurko lehen protagonista. Egungo Gasteizko Alde Zaharraren gainean kokatuta dago. Santa Maria katedralaren oinarriak oraindik ez dago, eta etxola bat dago haren lekua. Horren aurrealdean, artisau bat lanean, eta seguruenik, bizileku izango duen eraikin tipia. Etxebizitza luze bat du alboan, eskuinetara. Zuriak ditu hormak, eta, lehen begirada batean, bederen, adarrez josia teilatua; garai bateko eraikuntzen adierazgarri da. Bada hesiz inguratuta dagoen ukuilu bat ere, orduko abeltzaintza ereduak baten erakusle. Eta, eraikin guztien erdigunean, patio zabal bat dago. Ezkerrera eta eskuinera, berriz, larreak, zabalak eta luzeak, amaierarik gabeak. Denboraren makinaren beharrik ez dago iragana nolakoa zen ikusteko. Kasu honetan, aski da itxuraz prismatikoak diruditen kasko batzuk jantzi eta mendeetan atzera egitea, errealitate birtualari esker. Hain zuzen, Gasteizko Santa Maria Fundazioak teknologia hori oinarri hartuta bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du. Helburua hiriaren jatorria ezagutzea da, eta, ahal den heinean, IX. mendetik XVI. mendera artean egon diren aldaketak bertatik bertara bizitzea. Ordu eta laurdeneko bisitak dira, eta hiru agertoki zehatzetan egiten dira geldiuneak. Santa Maria katedralaren barrunbeetan hasten da bisita, gerora egingo den bidaia birtualean ezagutuko dena ulertzeko oinarri gisa. Esperientzia berri bat bizitzeko asmoz, bederatzi pertsonako taldea prest dago. «Bidaia hasi aurretik, errealitate birtualeko kaskoek ondo funtzionatzen duten egiaztatu behar dugu», azaldu du Txus Pavon gidariak. Kaskoek ondo funtzionatzen dutela baieztatzeko, parte hartzaileek bi lerrotan mantendu behar dute bisitako geldiuneetan zehar: bost aurrean eta lau atzean. Hala egin ezean, Pavonek ohartarazi duenez, ziurrenik betaurrekoek ez dute ondo funtzionatuko, konexioa dela eta. Kaskoak jantzi eta guztia ongi dagoela egiaztatu ostean, bidaia hasteko unea da. «Santa Maria plazan egingo dugu lehen geldiunea». Lehen agertokian, IX. mendetik XII. mendearen erdialdera arteko bidaia egin, eta eremu horrek izan duen bilakaera ikus daiteke. XII. mendean, esaterako, langile batzuk egurra lantzen ari dira, eta atzean Santa Maria katedrala baino lehen eliza zenaren oinarriak eraikitzen hasiak dira. Harresia ere ikus daiteke, eta garai bateko etxolek etxebizitza landuagoen irudia dute; bi pisutako etxeak dira, eta oinarrian harria dute. Bisitariak kaskoak jantzita dituzte, eta bueltara ari dira, 360 graduako ikuspegia eskaintzen baitu bisitak. Bada lerroaren zentzua galdu duenik ere, benetan zein errealitatean dagoen ez dakienik. «Izugarri gustatzen ari zait hau», esan du Itziar Gusto gasteiztarrek. Ez du lehen aldia halako esperientzia batean, aurrez ere leku berean beste bat egin baitu. «Bisita hau eskainiko zutela ikusi nuenean, ez nuen bi aldiz pentsatu, eta etorri egin naiz». Santa Maria kantoia da hurrengo geldiunea, eta Gasteizko harresia bigarren agertokia, XII. mendetik XVI. mendera arte. Bisitariak ere gero eta zirrara handiagoarekin daude, zer ikusiko esperoan. Lehen mendeetan, harresiaren iparraldean eraikitako atea da nagusi, hirira sartzeko bideetako bat, eta, bertatik kanpo aldera begiratzuz gero, egun ikusgai diren paisaiak ere atzeman daitezke, hala nola Gorbeiako gaina. Mendeetan aurrera egin ahala, ikusi daitezke beste bi ate ere egin zituztela, eskuinerago. «Eginiko bigarren atea, adibidez, kantoia honetatik begiratzuz gero, katedraleko paretan ikusgai dago», ohartarazi du Pavonek. Hala ere, gaur egun, beste bi ateen berririk ez dago.

IRAUNGI

BERRIA 2020-X-25 (Moldatua)

Ane Labaka/Mariñe Arbeo

Badira, gutxienez, bi motatako lagunak. Edo, nik behintzat, bi motatako lagunak bereizten ditut nire harreman sarearen baitan: lagun iragazkiak eta lagun ispiluak. Ahalegin berezia egin ...**0**..... dut gainerakoak, entzuten ez dakitenak, laguntzat ez hartzeko. Lagun iragazkiek, aditu ...**1**....., zulotxoak irekitzen dizkiete nire hitzei, epairik eta oztoporik gabe bertatik igarotzen utziz. Lasaigarri zait beraien parean eseri eta korapilatzen nauenari ...**2**..... luze eta zabal mintzatzea. Kaos mentala ordenatzen laguntzen dit burmuinetik ezpainerako bidea beraien begietara begira egiteak. Lagun ispiluak dira, ordea, gehien maitatzen eta gehien ...**3**..... ditudanak. Gorroto ditut neure buruari egitera ausartzen ez naizen galderak ahoz gora tirokatzen dizkidatenean, entzun nahi dudanaren orde ez entzun nahi ez dudana ...**4**..... didatenean. Gorroto ditut, eta aldi berean maite, autokritikara naramaten lagunak. Ispiluak. Ikusi nahi ez dudana hori ere begien parean jartzen ...**5**..... dutenak. On egiten dit lagun ispiluekin gosaltzeak. Ahal dela, jengibre infusioa eta madalena integralak. Orain gutxi arte konbentzimendu osoz defendatuko nuke gure etxeetako objektuen gehiengoak ez duela iraungitze datarik. ...**6**..... irakurri dudanez, baina, ametsen atari diren burkoak, adibidez, iraungi egiten dira denborarekin. Eta orraziak, eta esponjak, eta eskuoihalak... Eta iragazkiak ere bai, akaso. Espero gabe, zahartutako objektuz beteta izan genezake ...**7**..... eta gu, bitartean, duela bi edo hiru aste erositako limoizko jogurtaren zenbaki txikiei beha, egun gutxi ...**8**..... epea amaituko zaion opari txartelarekin arduratuta. Iragazkiek akaso baietz nioen gorago. Ez dakit ziur ispiluek ere iraungitze datarik ote duten. Eta harremanak, iraungitzen ote dira? Diskurtsiboki bada ere, ...**9**..... erromantikoaren iruzurrak errotik erauzteko saiakeran ari gara. Eta, bide batez, euskal koadrila nuklearraren itxitasuna zalantzan jartzen ere bai. Baina hara non ia denok dauzkagun -edo ia denok izan garen noizbait- maitemindu eta bat-batean lagunengandik desagertutako lagun ikusezinak. Baina hara ...**10**..... ia denok nahi dugun lur zati txiki bat, luiziren batek guztia hankaz gora jarrita ere bertara lasai itzultzeko moduko eremu egonkor ...**11**..... bat. Min handia egin digu betierekotasunak. ...**12**..... gurea salbuespena izan daitekeela sinestera iritsi arren, badakigu bikote harremanak hasi eta bukatu egiten direla.

- | | | |
|--------------|----------------|----------------|
| A. ahala | F. buruz | K. non |
| B. asmatzen | G. gorrotatzen | L. ohi |
| C. barru | H. lantzen | M. samar |
| D. berriki | I. maitasun | N. xuxurlatzen |
| E. bizitokia | J. noizbehinka | O. zutabe |

«LANA EZKUTUAN EGIN BEHAR IZATEN DUGU»

BERRI. 2020-11-10 (Moldatua)
Amaia Igartua Aristondo

0. Noiz erabaki zenuen Morian gertatzen zena ezagutaraztea?

1. Dokumentalean kontatu ez ezik erakutsi ere egiten da egoera. Zein ekarpen egiten dute irudiek?
2. Zein irizpiderekin aukeratu dituzu lekukoak?
3. Grabatzeko oztopoak izan dituzu?
4. Eta zer moduz agintariekin?
5. Dokumentalean esaten da andreen %41i sexu abusuak egin dizkietela kanpalekuan. Elkartasunik badago?
6. Dokumentalean, Mohamedek dio bidaiari ekin zionetik trauma duela. Arazo psikologikoak ezkutuan daude kanpalekuan?
7. Asteon hara itzultzekoa zara. Aurrerantzean zer espero duzu?

- A. Aurreikus daiteke egoerak okerrera egingo duela. Batetik, birusa daukagu; bestetik, negua atarian dago. Kanpaleku berria itsasertzean dago, eta euria egiten duen bakoitzean uholdeak daude.
- B. Bakoitzak ahal duen moduan egiten die aurre halakoei, osasun zerbitzuak oso urriak baitira. GKE batzuek arta psikologikoa eskaintzen zuten, baina, suteaz geroztik, hutsetik hasi behar izan da dena.
- C. Erakundeek eta bereziki Poliziak oztopoak etengabe jartzen dizkigute kazetarioi. Morian eta kanpaleku berrian debekatua dago grabatzea. Arriskuan zaude: isun bat jarri, edota materiala ken diezazuten. Azken finean, lana ezkutuan egin behar dugu.
- D. Etengabe. Larrialdi humanitario batean lan egitean kontuan hartu behar duzu baldintza ia ezin zaugarriagotan dagoela jendea, eta pertsona horien egoera ahal den neurrian ulertu eta errespetatu behar duzu. Mesedea baino gehiago, kaltea egin dezakezu.
- E. Halako errealitate gordinez ari garenean, ikusteak agian irakurtzeak baino inpaktu handiagoa sortuko du, eta hor dago bere indarra.
- F. Herrialde ezberdinetako emakumeek antolatzeari ekin diote arazo komunei aurre egiteko. Antolatzeko eta ezberdintasunak gainditzeko grina dago.
- G. Joan den urte amaieran.**
- H. Saiatu behar duzu dena islatzen modu mugatuan, ezin delako mundu guztia elkarrizketatu. 50 herrialde baino gehiagoko pertsonak bizi dira han, eta nire irizpideen artean zegoen herrialde ezberdinetako pertsonak elkarrizketatzea.
- I. Sekulako esperientzia izan da eta zalantzarik gabe berriro errepikatzea gustatuko litzaidake.

COMPRESIÓN DE TEXTOS ESCRITOS C1

HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1 – Jatorrira jauzi era birtualean.

Egunkariko testu hau irakurri ondoren, erantzun galdera hauek.

Aukera bakarra da zuzena.

7 item x 1 puntu

..... / 7 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7
A	A	A	B	C	A	B	A
√							

TAREA 2 –Berria egunkarian argitaratutako artikulu honetan hainbat hitz kendu

ditugu. Aukeratu hitz egokia. Bi hitz sobera daude.

12 item x 0,5 puntu

..... /6 puntu.

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
L	A	F	G	N	B	D	E	C	I	K	M	J
√												

SOBERA: H,O

TAREA 3 – Lana ezkutuan egin behar izaten dugu.

Ondorengo elkarrizketan pareka itzazu galderak eta erantzunak.

Erantzun bat sobera dago.

7 item x 1 puntu

...../7 puntu

0	1	2	3	4	5	6	7
G	E	H	D	C	F	B	A
√							



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **45 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
 - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
 - **primera escucha** del documento
 - **un minuto** para responder
 - **segunda escucha** del documento
 - **dos minutos** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1 Argiako podcast hau entzun ondoren, baieztapen hauek Egia ala Gezurra diren adierazi. 7 item x 1 puntu/7 puntu
---	----------------------

		E/G	
0	Masa antropogenikoa: gizakiak sortutako masa edo materia da.	E	√
1	Lur planetan gizakiek pisu handiagoa dute material artifizialek baino.		
2	Ikerlan hau Israelgo zientzia institutuak egin du.		
3	Ikerketa honen helburua izaki bizidunen pisua eta hauek sortutako material eta gauzena alderatzea da.		
4	Kopurua bi modutara eman zuten: tonatan eta kilotan.		
5	Ikertzaile hauek nahi dutena jendeak kontzientzia hartzea da.		
6	Egoera hau azken 20 mendeetan igo da nabarmen.		
7	Azken 120 urteetan gizakiok sortutako azpiegitura artifizialak aurreko milaka urteetan baino askoz gehiago izan dira.		



**TAREA 2 Elkanoren bizitzako pasarte bat entzungo duzu. Erantzun
galderak. Aukera bakarra da zuzena.**

7 item x 1 puntu

...../ 7 puntu.

0. 12-13 urteko gazteek, zein lan egiten zituzten?

a) Erlojuak konpontzen zituzten.

b) Jakiak erosten zituzten.

c) Janaria prestatzen laguntzen zuten.

1. Morroi hauek:

a) Lehorrean baino gutxiago irabazten zuten.

b) Soldata eta mantenua izaten zuten.

c) Tripa-truke joaten ziren itsasontzietan lan egitera.

2. Itsas mutilak/ek:

a) 18-20 urte bitartean izaten zituzten.

b) Ofizialen semeak izaten ziren.

c) Hierarkian baxuenak izaten ziren.

3. Itsasontziak gobernatzeko:

a) Hamar itsas mutil behar ziren.

b) Hamar marinela nahikoak ziren.

c) Hainbat itsas mutil eta marinela behar ziren.

4. Marinela batzuk:

a) Kapitain jenerala zerbitzatzen aritzen ziren.

b) Nabigazioaren artea ikasteko pilotuekin ibili ohi ziren.

c) Nabigatzeko gai ziren inolako laguntzarik gabe.

5. Zertarako erabiltzen ziren usoak?

a) Familiakoei eskutitzak bidali ahal izateko.

b) Galtzen zirenean lurra non zegoen jakiteko.

c) Itsasontzien arteko aginduak bidaltzeko.

6. Jateko ordua:

a) Eztabaidatzeko baliatzen zuten.

b) Isilik egin behar izaten zuten.

c) Txantxa artean ematen zuten.

7. Oiloen arrautzak:

a) Janari berezizat zituzten.

b) Kapitainarentzat izaten ziren guztiak.

c) Marinelen artean banatzen ziren.

0	1	2	3	4	5	6	7
C							
√							



TAREA 3 Euskadi Irratiko albistegia entzun ondoren, galdera hauek erantzun. 1-4 hitz erabil ditzakezu.	12 item x 0,5 puntu/6 puntu.
---	----------------------------	-----------------------

0. Non hasi da Europako Covid-aren aurkako lehen txertaketa?

- ERRESUMA BATUAN

√

1. Nori jarri diote lehen txertoa?
2. Nork jarri du lehen txertoa?
3. Nongoa da jatorriz emakume hau?
4. Zertarako dira 800.000 dosi hauek?
5. Gurera itzulita, azken datuak nolakoak dira?
6. Zeinek dauka intzidentzia metatu hobe, Nafarroak ala Euskadik?
7. Hiru urtetik gorako haur guztiek hezkuntza ikastetxean jasotzeko proiektua, non aurkeztu dute?
8. Zer uste dute gurasoek lege-proiektu honi buruz?
9. Londresek eta Bruselak zertarako izan dituzte hartu-emanak?
10. Zer dio Boris Johnsonek?
11. Durangoko azoka nolakoa izaten ari da?
12. Arantxa Atutxak dioenez, zer da azoka hau?

COMPRESIÓN DE TEXTOS ORALES C1

HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1 Argiako podcast hau entzun ondoren, baieztapen hauek Egia ala Gezurra diren adierazi.	7 item x 1 puntu/7 puntu
--	-------------------------	----------------------

		E/G	
0	Masa antropogenikoa: gizakiak sortutako masa edo materia da.	E	√
1	Lur planetan gizakiek pisu handiagoa dute material artifizialek baino.	G	
2	Ikerlan hau Israelgo zientzia institutuak egin du.	E	
3	Ikerketa honen helburua izaki bizidunen pisua eta hauek sortutako material eta gauzena alderatzea da.	E	
4	Kopurua bi modutara eman zuten: tonatan eta kilotan.	G	
5	Ikertzaile hauek nahi dutena jendeak kontzientzia hartzea da.	E	
6	Egoera hau azken 20 mendeetan igo da nabarmen.	G	
7	Azken 120 urteotan gizakiok sortutako azpiegitura artifizialak aurreko milaka urteetan baino askoz gehiago izan dira.	E	

TAREA 2 Elkanoren bizitzako pasarte bat entzungo duzu. Erantzun galderak. Aukera bakarra da zuzena.	7 item x 1 puntu/ 7 puntu.
--	-------------------------	------------------------

0	1	2	3	4	5	6	7
C	B	A	C	B	B	C	A
√							

0. Non hasi da Europako Covid-aren aurkako lehen txertaketa?

- ERRESUMA BATUAN

√

1. Nori jarri diote lehen txertoa?

MARGARETI/EMAKUME BATI

2. Nork jarri du lehen txertoa?

ERIZAIN GAZTE BATEK

3. Nongoa da jatorriz emakume hau?

IPAR IRLANDAKOA

4. Zertarako dira 800.000 dosi hauek?

LEHEN FASERAKO

5. Gurera itzulita, azken datuak nolakoak dira?

HOBEAK/HOBERANZKO JOERA.

6. Zeinek dauka intzidentzia metatu hobe, Nafarroak ala Euskadik?

NAFARROAK

7. Hiru urtetik gorako haur guztiek hezkuntza ikastetxean jasotzeko proiektua, non aurkeztu dute?

FRANTZIAN

8. Zer uste dute gurasoek lege-proiektu honi buruz?

GINARRIZKO ASKATASUNAREN AURKAKOA DELA

9. Londresek eta Bruselak zertarako izan dituzte hartu-emanak?

GOI BILERA PRESTATZEKO

10. Zer dio Boris Johnsonek?

LONDRESKO GOBERNUA INDEPENDIENTEA DA

11. Durangoko azoka nolakoa izaten ari da?

EZOHIKOA/BEREZIA/ARRAKASTATSUA

12. Arantxa Atutxak dioenez, zer da azoka hau?

TOPAGUNEA/PLAZA



MEDIACIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **30 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN MEDTE: /10

PUNTUACIÓN MEDTO: /10

PUNTUACIÓN TOTAL MEDIACIÓN: /20
--



MEDIAZIOA. Paulo André Chenso sendagilea eta irakaslea da Londresen. Hobeto bizitzeko aholku batzuk eman ditu (moldatua). Idatz iezaiozu email bat zure lagun bati bere bizitza hobetuko duten gomendio hauetako batzuk erabiliz. Zure hitzak erabili.

150 hitz.

..... /10 puntu.

Osasunari dagokionean:

- Edan ezazu ur asko.
- Zuhaitzetan eta landareetan jaiotzen denetik gehiago jan.
- Hartu 30 minutu atseden hartzeko.
- Liburu gehiago irakurri.
- Egunean 8 ordu lo egin.
- 20 minututik ordu betereinoko ibilaldiak egin egunero eta zabiltzan bitartean irribarre egin.

Nortasunari dagokionean:

- Ez ezazu alderatu zure bizitza besteenarekin.
- Ez izan pentsamendu ezkorrik.
- Ez egin gehiegikeriarik.
- Hitz egin lasai, garrasirik egin gabe.
- Bizitza oso laburra da norbait gorrotatzen aritzeko.
- Zure iraganarekin bakeak egitzazu, zure oraina ez dezan hondatu.
- Irribarre eta barre gehiago egin.
- Eztabaida guztiak ez dauzkazu irabazi beharrik. Galtzen ere jakin ezazu.

Gizarteari dagokionean:

- Familiarekin harreman estuagoa izan ezazu.
- Egunero zerbait ona emaiezu besteei.
- Barka iezaiezu dena denei.
- Igaro ezazu denbora 70 urte baino gehiagokoekin eta 6 urte baino gutxiagokoekin

Zure eguneroko bizitzan:

- Egizu zuzena dena.
- Alde batera utz ezazu baliagarri ez dena.
- Gogoratu beti osasuntsu bizitzeaz, behar bezala zainduz.
- Hoberena oraindik etortzeko dago.
- Goizean esnatutakoan, eskertu bizirik zaudela.
- Manten ezazu bihotza beti alai.

MEDIACION C1

Resumir los consejos que aparecen en el texto para disfrutar de una vida más sana y placentera.

NO debes repetir, literalmente, las palabras del texto original.

NO debes añadir ideas propias ni información que no se incluya en el texto.



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **90 minutos**
- Apague su **teléfono móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **las dos tareas**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL:	/20
--------------------------	------------



TAREA 1	IRITZI ARTIKULUA. Gasteizen tranbia auzo gehiagotara zabaldu nahi dute. Idatzi zure herriko aldizkarian argitaratzeko zure iritzia gai honen inguruan eta zure argudioak arrazoitu. 250 hitz /10 puntu
TAREA 2	Datorren ikasturtean euskara ikasten jarraitu nahi duzu baina Mirandako hizkuntza eskolan ez dago C2. Idatz iezaiozu ESKUTITZ bat Hizkuntza Eskolako zuzendariari C2 ikastaro ipin dezaten. Zure eskaera argudiatu ikasle asko izango direla esanez. 150 hitz. /10 puntu

C1

Tarea 1

Hacer suposiciones sobre las ventajas y desventajas que supondrá la ampliación del tranvía.

Mostrar tu acuerdo o desacuerdo, total o parcial, con el proyecto.

Dar una opinión y/o valoración del proyecto.

Predecir las consecuencias de esa ampliación.

Tarea 2

Saludar y despedirse como corresponde.

Presentarse de manera formal.

Hacer suposiciones y plantear hipótesis.

Pedir una respuesta a la propuesta realizada.



PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B

MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES

Zure lagun baten semeak kazetaritza ikasi du. Azal iezaiozu zure lagunari ze nolako aukerak dituen Argia aldizkarian bekadun aritzeko.

BEKADUNAK EZ DIRA KAFEA ZERBITZATZEKO

Sinadura berriak agertzen dira lau hilean behin Argiaren webguneko albisteetan. “Hara, bekadun berriak izango dira hauek”, argia.eus-en ibiltzeko ohitura baduzu, behintzat, izango zenuen erreakzio hori noizbait. Kazetaritzaren edo ikus-entzunezkoen munduan murgiltzen ari denarentzat aukera polita izan daiteke euskal hedabide bat barrutik ezagutu eta bertan bere lehen lanak egiteko.

Maria Ortega Zubiate markina-xemeindarrarena da gaur egun topatuko duzun sinadura. Lehen Bilbo Hiria irratian aritu zen praktikak egiten eta orain, Gradu Amaierako Lana egiten ari den bitartean, prentsa idatzian lan egitea zer den probatu nahi izan du. Praktikaldi honetan, batez ere, Argiaren webgunea elikatzeaz arduratzen dira bekadunak. Egunerokoak eskaintzen dituen albisteak osatzen dituzte, lantaldeko erredaktoreek beren zuzenketak egin eta aholkuak ematen dizkiote eta sarean publikatzen dira. Zergatik sartu aukeretan Argia? Leku askotan egin daitezke kazetaritza praktikak. Zergatik aukeratu zenuen Argia? Galdera hori egin diot Ortegari, niri ere kanpotik begiratzea tokatzen zaidan kasuetan sinesgarriagoa egiten baitzait norbaitek bere esperientziatik kontatzea. Hala dio: “Uste dut Argia aukera ona dela praktikaldia bertan egiteko. Euskal kazetaritzako erreferenteetako bat izateaz gain, hurbileko tratua dago lankideen artean”. Lasarte-Orian dagoen taldea ez da handia, baina taldea da. Ekipoa. Eta kazetaritzako praktikak egiteaz gain, alegia, artikulua, erreportajeak edo elkarrizketak idazteaz gain, ikasten da taldean lan egiten. Ezagutzen da benetan ekipo batek nola funtzionatzen duen. Astekari bat sortu eta eskuetan izateraino ze kate dagoen eta katean lan egitea zer den. Maketazioa, diseinua, inprenta, publizitatea eta hil bukaeran soldatak ordaindu ahal izatea.

Ortegak dio berak “lotsa galtzen ikasi” duela. Nola idatziko zuen, zer esango zioten erredaktoreek, zuzentzaileek, horiek zituen hasieran zalantzak. Baina “geroz eta erosoago” sentitzen dela aitortu digu. Horretarako dira praktikak. Bakoitzak bere lotsei eta beldurrei aurre egiteko aukerak, eta aukera aprobetxatuz gero, asko ikasiz lan-mundua ezagutzeko eta heltzeko lekuak.

PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)

EDERTASUNAri buruz arituko zara. Zer da edertasuna zure ustez? Gaur egungo edertasun kanonek pertsonengan duten eraginari buruz arituko zara eta zure iritziak arrazoitu egingo dituzu.

COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)

a.- HEZKUNTZAAri buruz arituko zarete. Eskolak gizarte-desberdintasuna errepikatzen du dirudun eta txiroentzako ikastegiak daude eta. Hori dela eta, hezkuntzak ez du igoera soziala bermatzen. Gehienetan txiroek txiroak izaten jarraitzen dute eta aberatsak gero eta aberatsagoak dira. Argudiatu zure iritzia,

b.- HEZKUNTZAAri buruz arituko zarete. Zuk hezkuntzaren garrantzia defendatzen duzu, zure ustez igoera soziala bermatzen baitu. Txiroek txirotasunetik irteteko duten aukera bakarra ikastea da. Behar-beharrezkoa da txiroek ere aberatsen aukera berberak izatea ikasi ahal izateko. Argudiatu zure iritzia.